

**PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ZALDI-AZIENDARI JATEN EMATEA, LEHEN LAGUNTZA EMATEA, ETA HURA GOBERNATZEA (ZEHARKAKOA)	Iraupena	90
		Zeharkakoa	
Kodea	MF0719_2		
Lanbide-arloa	Kirol-jarduera fisikoak		
Lanbide-eremua	Aisialdiko gorputz- eta kirol-ekintzak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ingurune naturaleko zaldi-ibilbideetako gida	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Zaldiz egiteko ibilbideen azterketa eta kudeaketa.	Iraupena	50
	Ingurune naturaleko lekualdaketak, egonaldiak eta segurtasuna zaldi-jarduerak egitean (zeharkakoa)		30
	Zaldi-jardueretarako olgeta-jarduera osagarriak egitea, eta autonomia pertsonala mugatua duten pertsonetara egokitzea (zeharkakoa)		30
	Zaldiz ibiltzeko instalazioak eta ekipoak (zeharkakoa)		40
	Zaldiz ibiltzeko kondizio fisikoa eta zaldiaren gaitasuna (zeharkakoa)		60
	Zaldiz ibiltzea (zeharkakoa)		80
	Ingurune naturalean zaldiz kirol-jarduera egitea.		80
	Ingurune naturaleko lekualdaketak, egonaldiak eta segurtasuna zaldi-jarduerak egitean (zeharkakoa)		30
	Zaldi-jardueretarako olgeta-jarduera osagarriak egitea, eta autonomia pertsonala mugatua duten pertsonetara egokitzea (zeharkakoa)		30
	Lehen laguntzak (zeharkakoa)		40
Ingurune naturaleko zaldi-ibilbideetako gidaritzari buruzko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideen modulua.		80	

**A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0719\_2 Zaldi-aziendari jaten ematea, lehen laguntza ematea, eta hura gobernatzea.

**B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**
**Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak**

A1: Zaldi-ganaduaren bizitzako fase guztietan hura ondo elikatzeko erabili beharreko prozedurak zerrendatzea.

EI1.1 Zaldi-ganaduaren digestio-aparatura deskribatzea.

EI1.2 Zaldi-ganaduarentzako elikagai-motak eta elikagaiak biltegitratzeko eta kontserbatzeko moduak bereiztea.

EI1.3 Anoak banatzeko metodoak eta haietako bakoitza emateko tokiak identifikatzea.

EI1.4 Ganadua elikatzean erabiltzen diren osagarri-mota desberdinak eta haiek emateko halaberharrezko kasuak bereiztea.

EI1.5 Zaldi-ganadua elikatzean erabiltzen diren jakiak eta osagarriak aldatu direla erakusten duten zeinuk eta sintomak deskribatzea.

EI1.6 Animaliek pisuaren, adinaren, helmugaren, egoera fisiologikoaren eta egiten duten lan-motaren arabera behar dituzten anoa-motak azaltzea.

EI1.7 Moxal baten edoskitze artifiziala egiteko teknika, produktu eta kantidadegokiak zehaztea.

EI1.8 Laneko arriskuak prebenitzeko eta animalien ongizaterako arauetan jasotako espezifikazioak —zaldi-ganaduaren elikadurari lotuak— adieraztea.

EI1.9 Zaldi-ganadua elikatzeko kasu praktiko batean:

- Gaizki dagoen zaldi-ganadua elikatzeko erabiltzen diren elikagaiak eta osagarriak hautematea.
- Elikagai-anoa oso eta egoki bat ematea arraza, sexu eta adin desberdinetako animaliei.
- Moxal bati edoskitze artifiziala egitea.

A2: Olgeta-, lan- eta kirol-helburuak dituzten jardueretan erabiltzen den zaldi-ganadua gobernatzeko modua azaltzea eta gobernatzea, ezarritako helburuak betetzeko aukera emango duten denbora eta moduetan.

EI2.1 Jarduera horietako bakoitza garatzeko kondizioak aipatzea, eta haietan animaliak nola erabiltzen diren azaltzea.

EI2.2 Ganadu-mota horrek jarduera horietan erabili aurretik behar dituen zaintzak deskribatzea.

EI2.3 Animalia horiek jarduera jakin baterako erabiltzea galarazten duten patologia ohikoenak azaltzea.

EI2.4 Ganadua jarduera horietako bakoitzerako estetikioki prestatzeko egin beharreko lanak aipatzea.

EI2.5 Jarduera horietako edozein egiteko animalia horiekin erabiltzen diren ekipo- eta material-mota desberdinak deskribatzea.

EI2.6 Ganadua olgeta-, lan- eta kirol-helburuekin erabiltzeko prestatzeari lotutako kasu praktiko batean:

- Zehaztutako jarduera batean erabili behar den animalia bat garbitzea eta aldez aurretik berrikustea.
- Animaliei material eta lan-ekipo egokiak jartzea eta doitzea.
- Animalia estetikoki prestatzea, erabiliko den jardueraren arabera.
- Animalia egoera ezin hobean uztea, erabili ondoren atsedean har dezan.

A3: Zaldi-ganadua garraiatzeko materialak eta ekipoak identifikatzea, eta animaliak ibilgailura igotzean eta handik jaistean sor litezkeen arriskuak minimizatzea.

EI3.1 Zaldi-ganadua garraiatzeko garraiobideek izan behar dituzten gutxieneko ezaugarriak deskribatzea.

EI3.2 Ganadua garraiatzean hura egokitzeko eta babesteko erabiltzen diren materialak eta ekipoak aipatzea.

EI3.3 Ganadua ibilgailura behar bezala igotzeko eta handik jaisteko erabili beharreko teknikak azaltzea.

EI3.4 Ganadua multzoan garraiatzean bete beharreko gutxieneko segurtasun-arauak aipatzea.

EI3.5 Ganaduak garraiatzean jaso beharreko zaintzen eta arreten zerrenda bat egitea.

EI3.6 Zaldi-ganadua garraiatzeko une egokia —garaiaren, klimatologiaren, animalien egoeraren eta garraioaren arabera— identifikatzea.

EI3.7 Laneko arriskuak prebenitzeko eta animalien ongizaterako arauetan jasotako espezifikazioak —ganadua ibilgailura igotzeko eta handik jaisteko eta garraiatzeko tekniketara— adieraztea.

EI3.8 Zaldiak garraiatzeko kasu praktiko batean:

- Garraioidea aztertzea, eta haren gaitasuna aintzatestea.
- Zaldi bati garraiatzeko babeste-ekipoak jartzea.
- Zaldi bat ibilgailura igotzea eta handik jaistea.
- Zaldi bat baino gehiago ibilgailu berean ondo jartzea.

A4: Animaliak multzoan eramateko aplikatu beharreko lekualdatze-teknikarik egokienak deskribatzea.

EI4.1 Animaliak taldean lekualdatu aurretik behar bezala multzokatzeko jarraitu beharreko prozedurak aipatzea.

EI4.2 Taldean lekualdatzeko arazoak dituen animalia baten zeinu edo sintoma nabarmenak identifikatzea.

EI4.3 Animaliek taldean egingo duten ibilbideak izan behar dituen gutxieneko segurtasun-baldintzak aipatzea.

EI4.4 Laneko arriskuak prebenitzeko eta animalien ongizaterako arauetan jasotako espezifikazioak —animaliak taldean lekualdatzeari lotuak— adieraztea.

EI4.5 Animaliak taldean lekualdatzeko kasu praktiko batean:

- Animaliak multzo bakar batean biltzea, lekualdatzeari ekin aurretik.
- Animaliak modu seguru eta ordenatuan lekualdatzea.
- Taldean lekualdatzeko prozesu guztian kontrolatzea animaliak.

A5: Zaldi-ganaduaren osasunerako arrisku kritikoa dakarten gaixotasun, traumatismo eta zaurien sintomak identifikatzea, eta urgentziaz esku hartzea, gorabehera bakoitzeko lehen laguntza espezifikoa emanez.

EI5.1 Zaldien traumatismoak eta/edo gaixotasunak agerian uzten dituzten sintomak ezagutzea.

EI5.2 Urgentziaz tratatu behar diren animalien traumatismo eta/edo gaixotasunen aurrean jarduteko protokoloa deskribatzea.

EI5.3 Larriak direlako urgentziaz tratatu behar diren zauriak ezagutzea.

EI5.4 Traumatismoak eta/edo zauriak tratatzeko erabiltzen diren produktuak ezagutzea.

EI5.5 Traumatismo eta/edo zaurietarako produktuak emateko moduak deskribatzea.

EI5.6 Tratamendu-mota bakoitzari dagozkion kontrol-fitxak ezagutzea.

EI5.7 Laneko arriskuak prebenitzeko eta animalien ongizaterako arauetan jasotako espezifikazioak —animaliei lehen laguntza emateari lotuak— adieraztea.

EI5.8 Lehen laguntza emateko kasu praktiko batean:

- Zaldi bati urgentziaz tratatu behar zaizkion gaixotasun, traumatismo eta zauriak agerian uzten dituzten sintomak identifikatzea.
- Zauritutako zaldi bati urgentziazko sendaketa bat egitea.
- Gaixotasunen bat izanez gero albaitariak agintzen dituen tratamendu terapeutikoak ematea.
- Zaldi bati lehen laguntza emateari buruzko kontrol-fitxak osatzea.

## Edukiak

### 1. Zaldiaren elikagaiak prestatzea, ematea eta biltegiratzea:

- Zaldien digestio-aparatua.
  - Sarrera.
  - Organoak eta guruin erantsiak.
  - Digestio-prozesua.
- Ganaduarentzako elikagai-anoak eta ura.
  - Prestaketa.
  - Kontserbazioa.

- Biltegitratzea.
- Banaketa.
- Ohiz kanpoko nutrizio-osagarriak.
- Edoskitze artifiziala.
- Ganaduarentzako pentsuak eta ura prestatzeko, emateko eta biltegitratzeko ekipoen ezaugarriak eta erabiltzeko moduak.
  - Eskuzkoak.
  - Mekanikoak: Analogikoak. Digitalak.

## **2. Zaldi-arrazen optimizazioa, egiten den jardueraren arabera:**

- Zaldi-arrazak.
  - Taxonomia.
- Lan-jarduerak eta kirol-diziplina ludikoak:
  - Landako lanak.
  - Heziera: klasikoa, "Doma Vaquera".
  - Oztopoak saltatzea.
  - Hiru diziplinetako proba.
  - Jazarri eta bota.
  - Zalgurdi-lehiaketa.
  - Raid.
  - Zaldi-lasterketak.
  - Zaldi-paseoak eta -ibilbideak.

## **3. Animaliak taldean lekualdatzea eta zaldiak garraiatzea.**

- Lekualdatzea eta garraiatzea.
  - Sarrera.
  - Ganadua multzokatzeko eta taldean gidatzeko teknikak.
  - Animaliak ibilgailura igotzeko eta handik jaisteko eta garraiatzeko teknikak.
- Animaliak taldean lekualdatzeko mahukak eta hesi mugikorak.
  - Ezaugarriak eta erabiltzeko moduak.
- Zaldientzako garraiobideak.
  - Motak.
  - Ezaugarriak eta berezitasunak.
- Ganadua garraiatzean hura babesteko ekipoak:
  - Motak.
  - Ezaugarriak eta jartzeko moduak.

## **4. Zaldi-ganaduaren lehen laguntza:**

- Urgentzia.
  - Sarrera eta kontzeptua:
  - Urgentziaz tratatu behar diren gaixotasunen ageriko zeinuak eta sintomak.
  - Urgentziaz tratatu beharreko gaixotasunak dituzten animaliak identifikatzea eta hautematea.
    - Urgentziaz esku hartzeko jarduerak.
  - Banakoaren egoera normala aldatzea.
    - Urgentziaz tratatu beharreko lesioak eta zauriak.
    - Zaldiek maiz izaten dituzten prozesu patologikoak, urgentziaz tratatu beharrekoak.

## **5. Zaldi-ganaduari jaten emateko, lehen laguntza emateko eta hura gobernatzeko jarduerari lotutako legediaren eta araudiaren aplikazioa:**

- Legeak.
  - Estatukoak, autonomia-erkidegokoak eta tokikoak.
- Hauei buruzko araudiak erregulatzen dituen jarduerak:
  - Ingurumena babestea.
  - Lan-arriskuen prebentzioa.
  - Ganaduaren ongizatea.
  - Animalien lekualdatzea.
  - Elikagai-segurtasuna.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ingurune naturaleko zaldi-ibilbideetako gida